

Ekainaren 13ko hauteskundeak Balorazioak

Nafarroako gobernagarritasunarekin duen erantzukizuna azpimarratu du PSNk

Atzoko herrialde batzordeak, hala ere, ez zuen UPNrekiko hitzarmenaz deus erabaki

Eduñe Elizondo / Iruñea

Alderdi Sozialistak Nafarroako gobernagarritasunarekin eta erakundeen egonkortasunarekin daukan erantzukizuna azpimarratu zuten PSNren herrialde batzordeko kideek atzo onartutako erabakiak. Gainerako indar parlamentarioekin elkarriketak egiteko eskatu diote alderdiko batzorde eragileari, eta hitzarmenei buruzko erabakiak herrialde batzordearen hurrengo bilera batean hartuko dituztela ezagutzera eman zuten.

PSN-REN herrialde batzordearen ezohiko bileran 150 lagunek parte hartu zuten atzo Iruñean. Hilaren 13ko hauteskundeetako emaitzak eta Gobernu osatzeko zabalduak elkarriketak aztertzeko deitu zuten bilkura. Bost orduko eztabaidaren ondoren —goizeko 10:00etan hasi zen herrialde batzordearen bilera, eta 25 partehartze baino gehiago izan ziren—, «alderdi sozialistak Nafarroaren gobernagarritasun eta egonkortasun instituzionalarekin duen erantzukizuna» azpimarratzen duen erabakia onartu zuen alderdi sozialistak; bi abstentzio izan ezik, aldekoak izan ziren gainontzeko boto guztiak.

Atzo onartutako erabakian, halaber, «gainontzeko indar parlamentarioekin beharrezko elkarriketak» egiteko eskatu dio PSNko herrialde batzordeak alderdiko batzorde eragileari, «hauteskundeetako gure erreali-



Juan Jose Lizarbe eta Javier Iturbe, atzo, PSNren Herrialdeko Batzordean bozkatzeko.

tateak erakundeetan parte hartzeko eskaintzen dizkigun aukerei ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzeko asmoz».

Hitzarmenei buruz erabakirik ez

Sozialisten eta UPN edo beste indar politikoen arteko hitzarmenei buruz, berriz, ez zuten inolako erabakirik hartu PSNko herrialde batzordeko kideek atzoko bileran, eta hartu beharreko erabakiak herrialde batzordearen hurrengo bilera batean egingo dituztela ezagutzera eman zuten. Azkenik, PSNko idazkari nagusi Juan Jose Lizarberengan eta haren batzorde eragilearengan duen konfiantza berretsi zuen alderdiko herrialde batzordeak.

Uriz: «Bide guztiak zabalik dira, baita EHrekin ere»

PSOE-KO Batzorde Eragileko eta PSNko kide Jose Luis Urizek «aurrerapauso garrantzitsutzat» jo zuen bere alderdiko herrialde batzordeak atzo onartutako erabakia, bere ustez EHrekin hitz egiteko aukera zabaldu egiten duela. Hasiera batean, «beste indar parlamentarioekin» elkarriketak egiteko aukera jasotzen zuen PSNren herrialde batzordeko kideek bozkatu beharreko erabakiak, baina Urizen partehartzearen ondorioz, testua aldatu eta «gainontzeko indar parlamentarioak» agertzea onartu

egin zuen alderdi sozialistako zuzendaritzak.

«Esaldi hori funtsezkoa da, itxita zegoela zirudien bidea ireki egiten baitu; hau da, une honetan aukera guztiak zabalik daude. Argi dago gainontzeko indar parlamentarioen artean EH dagoela, eta, beraz, aukera guztiak zabalik daudela», azaldu zion Jose Luis Urizek EGUNKARIARI. PSNkoak argi utzi zuen, hala ere, EHri dagokiola orain hurrengo urratsa egitea: «Aukera historikoa izan daitekeela konturatu behar du EHk», azaldu zuen.

Barriok «oso zail» ikusten du EAJren eta PSE-EEren arteko ituna

Efe / Gasteiz

CARMELO BARRIO PPko EAEko idazkariak «oso zail» ikusten du euskal instituzioak gobernatzeko EAJ eta PSE-EE akordio batera heltzea. Bere ustez, «alderdi hauek izan duten jarrera politikoa dela eta, ia ezinezkoa da EAJ eta PSE-EE akordiora iristea, EHkin dituen itunekin oso lotuta baitago EAJ».

PPk izan ditu jada kontaktuak sozialistekin Arabako instituzioez jarduteko, eta datorren astean berriro ekingo diete elkarriketei. Barrioren ustez, PP eta PSE-EEren artean izan daitekeen ituna «ez da frontismoa. Alternatiba demokratiko bat da».

Trebiñoren banaketa «legezkotasunetik» bideratu behar dela dio Acebesek

Efe / Avila

ADMINISTRATIO Publiko- etako ministro Angel Acebesek atzo esan zuenez, Trebiñoko Konderriaren auziari «Autonomia Estatutuek ezartzen duten elkarriketatik eta legezkotasunetik» egiten dio aurre gobernu zentralak. «Segregazio prozesu batean autonomia estatutuek diotena bete behar da. Kasu honetan, Gaztela eta Leongoa eta Gernikakoa».

Banaketa egiteko, herrietako korporazioen akordioaz gain, Burgosko Diputazioarena eta Gaztela eta Leongo Erkidegoarena ere behar da, eta oraingoz aurka azaldu dira.